Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4955

AGINDUA, 2010eko uztailaren 14koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «HKS Fundazioa-Historia, Kultura, Sociologia» delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Donostiako (Gipuzkoa) «HKS Fundazioa-Historia, Kultura, Sociologia» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

1.– Juan María Bolinaga Rekaolak, Ana María Gil Azcuek eta Aitor Manuel Iriarte Mirandak «HKS Fundazioa-Historia, Kultura, Sociologia» eratu dute EAEko Notarioen Elkargoko notario Jesús María Sanza Amurrio jaunak (295 protokolo-zk.) 2010eko martxoaren 3an emandako eratzeko eskritura publiko bidez.

2010eko maiatzaren 7an sartu zen eskritura hori Justizia eta Herri Administrazio Sailean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren Aholku Batzordea bildu zen, fundazioaren helburuak zilegiak eta interes orokorrekoak direla egiaztatzeko. Batzorde horrek fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen 2010eko ekainaren 29an.

2.– «HKS Fundazioa-Historia, Kultura, Sociologia» delakoaren helburua titulu publikoan sartutako estatutuen 3. artikuluan dago jasota, eta ondokoa da:

«Ikerketa eta ondorengo komunikazioa euren jardueren helburu funtsean euskal jatorriko Historia, Kultura eta Soziologiarako arloak izango dira.

Oro har Historia gaietako arloa oinarrizkoa da bere garapen progresiboa ulertzeko, emaitzatzat ahalmen sortzailea duen komunitate baten kultura adierazpen eta jarduera soziologikoa duen garapena.

Historiari lotutako Kultura arloko gertaera handiek Kultura ulertzeko forma berrietara eramango gaituzte eta ikerketen metodologia kuantitatibo eta kualitatiboek horretan lagunduko digute.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

4955

ORDEN de 14 de julio de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «HKS Fundazioa-Historia, Kultura, Sociologia».

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada «HKS Fundazioa-Historia, Kultura, Sociologia», de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por D. Juan María Bolinaga Rekaola, doña Ana María Gil Azcue y don Aitor Manuel Iriarte Miranda, se ha constituido la denominada «HKS Fundazioa-Historia, Kultura, Sociologia» mediante Escritura pública de constitución otorgada el 3 de marzo de 2010, ante el Notario del Ilustre Colegio del País Vasco, D. Jesús María Sanza Amurrio, con el número 295 de su protocolo.

Dicha escritura tuvo entrada en el registro del Departamento de Justicia y Administración Pública el 7 de mayo de 2010.

Reunida la Comisión técnica de la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco con la finalidad de verificar la licitud e interés general de los fines fundacionales, emite, con fecha 29 de junio de 2010, informe favorable a su inscripción.

2.– El fin fundacional de la denominada «HKS Fundazioa-Historia, Kultura, Sociologia» viene establecido en el artículo 3 de sus Estatutos, incorporados al título público y es el siguiente:

«La investigación y posterior Comunicación serán las áreas emprendidas para la Historia, Cultura y la Sociología fundamentalmente de origen vasco como finalidad de sus acciones.

La de los asuntos de la Historia en general es básico para entender su progresiva evolución que se traduce en las manifestaciones Culturales y actividades Sociológicas de una comunidad que crean creatividad.

Los vastos eventos de naturaleza Cultural asociados a la Historia, nos conducirán a las renovadas formas de entender la Cultura y nos ayudarán las metodologías cuantitativas y cualitativas de los estudios.

Fundazioaren helburuetako bat arte, musika klasiko, oro har musika, dantza eta ballet, argazkigintza, saiakera, antzerki, literatura, zinema, poesia, ediziogintza, omenaldi, teknologia berri eta diseinuaren arloko geroaldiko proiektuak onartzea izango da, gure irizpidearen arabera.

Aurreko atalarekin lotutako Historia helburu gisa eta oro har Historia Ikerketa eta Komunikazioari atxikia dago, gaiak ulertzeko bakoitza bere teknikekin.

Soziologia, Pentsamendu askea, Filosofia, Antropologia, Biologia, Hirigintza eta Ingurugiroari dagokienez azterketa bide arretatsu eta soziala dira egungo gizartearen ideia konplexu eta zabaletan murgiltzeko formula gisa. Hau ere landuko dugu.

Izaera sozial eta berritzailea duten lorpenak bultzatzeko beste ekimen batzuen proiektu estrategiko solidario eta etikoetan partaide izatea, egoki zaizkigun teknologiak gutxietsi gabe.

Unibertsitateko doktorego-tesiak edo maila apalagokoak baina interesgarriak diruz edo beste gisa batez lagunduko ditugu, gutxi sustatutako baina balio soziologiko handikoak espezialitateak.

Edozein arlotan balioa duen gazteria kontzertuak, lehiaketak, erakusketak gehi bestelako jarduerak antolatuz sustatuko da hasierako garai zailetan.

Euskara hizkuntza minorizatua denez komunikabide idatzietan, irratian eta telebistan, komikigintzan, eta bestelako euskarrietan indartuko da gure baliabideen arabera, asmo handiko plan geografikoen parte den heinean.

Ez da zuzenduko, ahalik eta audientzia handiena lortzeko, dauden ohiko bideetan eta Interneten bere jardueren helburuekin egiten den zabalkunde eta sustapena».

3.– Fundazioaren egoitza, Fundazioaren Estatutuetako 5. artikuluan jartzen duenez, hau da: Foruen pasealekua 5, E solairuartea, Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

4.– Hasierako hornidura ez diruzkoak eta diruzkoak diren ekarpenek osatzen dute; ez diruzkoak ehun eta hogeita hamar mila ehun eta hirurogeita hamabost (130.175) eurotan zenbatetsiak dira, eta dirutan egindakoak hirurogeita sei mila berrehun eta berrogeita hemezortzi euro eta berrogeita lau zentimokoak (66.258,44).

Orotara aipatu ekarpenen balioa ehun eta laurogeita hamasei mila laurehun eta hogeita hamahiru euro eta berrogeita lau zentimokoa (196.433,44) da, eta ondare-funtsa eratzera zuzentzen dira.

Aipatu ekarpenak egiazkoak direla agiri bidez egiaztatu da erregistro-inskripzioko espedientean, Euskal

Uno de los fines fundacionales será aprobar proyectos de arte, la música clásica, música en general, la danza y el ballet, la fotografía, el ensayo, el teatro, la literatura, el cine, la poesía, la edición, los homenajes, las nuevas tecnologías y el diseño en clave de futuro, según nuestro criterio.

La Historia relacionada con el apartado anterior como un fin y que la Historia en general está sujeta a la Investigación y la Comunicación con sus respectivas técnicas para comprender los temas.

En cuanto a la Sociología, el Pensamiento libre, la Filosofía, la Antropología, la Biología, el Urbanismo y el Medio Ambiente son un medio de exploración atento y social como fórmula de adentrarnos en la compleja y amplias ideas de la sociedad de hoy que también trataremos.

Formar parte de proyectos estratégicos solidarios y éticos de otras iniciativas para animar su consecución de carácter social e innovador no desdeñando cuantas tecnologías nos sean propicias.

Las tesis doctorales universitarias o de menor rango pero interesantes contarán con nuestro apoyo económico o de otra índole, las especialidades escasamente promocionadas pero de alto valor Sociológico.

La juventud con valía en cualquier materia será promocionada mediante la organización de conciertos, concursos, exposiciones más otras actividades de apoyo en los primeros tiempos de dificultades.

El euskera como idioma minorizado será potenciado en medios escritos, radio y televisión, cómics, y otros soportes en la medida de nuestras posibilidades siendo parte de planes geográficos ambiciosos.

No se reparará su difusión y fomento de las actividades que realice de sus fines de los diferentes medios existentes tradicionales e Internet para alcanzar la mayor audiencia.»

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, radicará en el Paseo de los Fueros número 5 entresuelo E de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

4.– La dotación inicial comprende aportaciones no dinerarias valoradas en ciento treinta mil ciento setenta y cinco (130.175) euros así como la aportación en metálico de sesenta y seis mil doscientos cincuenta y ocho con cuarenta y cuatro céntimos (66.258,44) euros.

Suma el valor de las indicadas aportaciones un total de ciento noventa y seis mil cuatrocientos treinta y tres con cuarenta y cuatro céntimos (196.433, 44) euros, que se destinan a constituir su fondo patrimonial.

Se acreditan documentalmente la realidad de dichas aportaciones en el expediente de inscripción

Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c) artikuluarekin bat.

Fundazioaren helburuak lortzeko ondare-hornidura egokia eta aski dela iritzi da, fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren arabera, izan ere, lege hori aplikatzekoa baita azken xedapenetatik lehenengoaren indarrez.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatu, administratu eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 9. eta 12. artikuluan jartzen duen moduan.

6.– Hasierako Patronatua, estatutuetako 10. artikuluan ezarritakoaren haritik Fundazioa eratzeko eskrituran xedatutakoaren arabera, honako honek osatzen du:

registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición final 1.ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 9 y 12 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional siguiendo lo establecido en el artículo 10 de los Estatutos, está integrado por:

Kargua		Iraupena
Lehendakaria	Juan María Bolinaga Rekaola	Mugagabea
Idazkaria	Ana María Gil Azcue	Mugagabea
Bokala	Aitor Manuel Iriarte Miranda	Mugagabea

Cargo		*Duración*
Presidente	*D. Juan María Bolinaga Rekaola*	*Indefinida*
Secretario	*Dña. Ana María Gil Azcue*	*Indefinida*
Vocal	*D. Aitor Manuel Iriarte Miranda*	*Indefinida*

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.– Fundazioko Patronatuak boterea Juan María Bolinaga Rekaolari eman dio Fundazioaren eskrituran deskribatzen diren jarduerak burutzeko, Fundazioaren estatutuetako 19. artikuluan xedatutakoarekin bat.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 40. artikuluan; halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuko 3. artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari,

Todos ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

7.– El Patronato de la Fundación, de acuerdo con lo establecido en el artículo 19 de los Estatutos fundacionales, confiere poder a D. Juan María Bolinaga Rekaola para la realización de las actividades que se describen en la Escritura fundacional.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública, mediante Orden, la Resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 3 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio; y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se

bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuko 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerako arauak ikusi dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Donostiako (Gipuzkoa) «HKS Fundazioa-Historia, Kultura, Sociologia» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, gaur, F-271 zenbakiarekin, bai eta Patronatuaren hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 14a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y siguientes del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistas las normas mencionadas y demás normas de general y pertinente aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública:

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de F-271, de la constitución de la denominada «HKS Fundazioa-Historia, Kultura, Sociologia», de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 3.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme a lo dispuesto en el artículo 2.2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de julio de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.